

# Memoria txostena: Ipuruako merkatu plaza auzoko gunearen prozesu parte-hartzailea



Ipuruako  
Merkatu  
Plaza

2020ko abenduan



# Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Prozesuaren helburuak.....	3
3. Prozesuaren jarraipenerako egitura.....	4
4. IPURUA MERKATU PLAZAREN Helburuak, balioak eta printzipio gidariak .....	6
5. ANTOLAKETA EREDUen azterketa .....	7
6. Antolaketa.....	10
7. Proposatutako ekintza motak.....	13
8. Eraikinaren antolaketa beharrak .....	15
ERANSKINAK.....	16

# 1. Sarrera

Ipuruako auzoko merkatuaren eraikin zaharra hutsik eta erabilera zehatzik gabe geratu zen orain dela urte batzuk. Aurretik, merkatuaren funtzioa bete zuen baina azken urteetan Osakidetzak bulego eta laborategi gisa erabili izan du eraikina, eta gaur egun ez du jarduerarik.

Eraikin zaharra hustu egin dela baliatuz, auzotar talde batek proposamen bat landu zuen eraikinaren erabilerarako, auzotarren elkargune erabili ahal izateko. Proposamen honek bide egin zuen eta Udalarik aurkeztu zitzaion. Batez ere, haurren aisialdi hezitzaileari lotutako lehen proposamena izan da, baina irekia arlo sozial eta kulturalako bestelako erabilerentzat.

Eibarko udalak ekimen hau kontuan hartzea erabaki zuen 2019ko apirileko udal plenoan, eraikina xede horretara bideratzea onetsi zelarik aho batez.

Horretarako, partaidetza prozesu bat abiatzea erabaki zen. Partaidetza prozesuarekin, proiektua sendotu eta honen erabilera eta antolaketa adostea izan da helburua. Ondoren, hor onartutakoarekin eraikina berrantolatzeako proiektu arkitektonikoa abiatuko da. Partaidetza prozesua bideratzeko Emun aholkularitza kontratatu du Eibarko udalak.

Esku artean duzun txosten hau, partaidetza prozesuaren laburpen-memoria da. Proiektu arkitektonikorako bide orri izango dena.

## 2. Prozesuaren helburuak

Prozesuaren helburu nagusia Ipuruako merkatu plazaren eraikinaren inguruan egindako proposamen hau herritarrekin definitu eta erabilera zein kudeaketa ereduak irudikatzea izan da.

### HELBURUAK

Partaidetza prozesuak 3 **helburu** nagusi izan ditu:

- Eraikinaren erabilera adostu
- Aurrera begirako antolaketa eta kudeaketa adostu
- Ipuruako merkatu plazaren erabilera gida sortzea

#### Zuzeneko helburuak:

- Eraikinaren erabilerarako aukerak adostea
- Antolaketa modua adostea

#### Zeharkako helburuak:

- Belaunaldien arteko harremanak sustatu, bestelako mugimenduentzat lagungarria izango den dinamika sortuz
- Eibar mailako proba pilotua izatea antzeko proiektuak beste auzoetan egiteko

## ESPEROTAKO EMAITZAK

- Ipuruako merkatu plazaren kudeaketaz eta dinamizazioaz arduratuko den talde antolatua.
- Auzoko aktibitatea suspertuko duen gune aktiboa eta irekia.
- Eraikinaren erabilerarako gida.
- Prozesuaren memoria txostena.

## 3. Prozesuaren jarraipenerako egitura

Helburu eta emaitza hauetara iristeko, hiru saio irekitan oinarritutako prozesu parte-hartzailea diseinatu da.

Parte hartzeko gune nagusia saio ireki parte-hartzaileak izan dira, baina prozesuaren gidaritza egiteko, talde eragile bat sortu da. Talde eragilearen egitekoak izan dira prozesuaren diseinuaren gainbegiratzea eta jarraipena egitea.

Bi parte-hartze gune hauen bidez, proiektua bera zehaztu, antolaketa ereduaz erabakiak hartu eta bestelako beharrak identifikatu dira.

Saio irekietan, orotara, **78 pertsonak** (3 saioetako pertsona kopurua kontuan hartuta), 43 emakume eta 36 gizonezkoak parte hartu dute. Horrez gain, Eibarko 16 talde edo elkarteetako kide ere egon dira presente.

## TALDE ERAGILEA

Prozesuaren gidaritza talde honen bitartez egin da.

**Osaera:** proiektuaren talde sustatzaileko kideak, proiektuarekiko interesa erakutsi duten Eibarko zenbait bizilagun, Eibarko udaleko ogasun eta parte-hartze gaietako zinegotziak eta Emuneko bideratzaileak. Talde hau zabalik egon da prozesu osoan zehar eta kide berriak sartu dira une ezberdinetan.

### Egitekoak:

- Prozesuaren ezaugarri nagusiak lantzea.
- Udalaren eta sustatzaileen arteko koordinaziorako gunea.
- Saio irekiak diseinatu eta prestatzea. Edukiak kontrastatzea eta osatzea.
- Edukien erreferentzia markoak osatzea.
- Balorazio jarraitua egitea.
- Ekintza zuzentzaileak bideratzea.

### Ezaugarriak, egitekoak:

- Lan taldea: prozesuaren “sukalde” lanak.
- Edukiak landu eta eztabaidagaiak erabaki
- Komunikazio bideak landu
- Saioak prestatu
- Saioen ondorioak aztertu. Proposamenak aztertu.
- Prozesuaren jarraipena eta zuzenketak.

### Kideak eta funtzioak:

- **Talde sustatzailea + proiektuarekin interesa duten herritarrak:** ideiaren sustatzaile eta interesdun gisa.
- **Eibarko udala:** azken arduradun gisa. Elkarlanerako markoa adostu. Berme legala.
- **Aholkularitza teknikoak:** prozesuaren ardura teknikoak.

## SAIO IREKIAK

Saio irekietan, berriz, edukiarekin zerikusia duten erabakiak hartu dira. Talde eragilean adostu diren langaiak eta eztabaidagaiak eraman dira batzar hauetara. Saio hauek, parte-hartze dinamika eta fazilitazio tekniken bitartez garatu dira bertaratutako kide guztien iritziak jasotzeko asmoarekin.

### Ezaugarriak:

- 3 saio:
  - **2020ko otsailak 5ean**, landutakoak: Erabilerak multzokatu, baliabide beharrak eta garapen mailak identifikatu
  - **2020ko martxoak 4an**, landutakoak: Espazioaren antolaketa, dinamizaziorako aukerak eta antolaketari buruzko analisia.
  - **2020ko azaroak 19an (online)**, landutakoak: Antolaketaren oinarriak zehaztu, espazioaren definizioa eta aurrera begirakoak zehaztu.
- Komunikazio euskarriak: WhatsApp taldea, udaleko komunikazio euskarriak (web orria), Facebook orrialdea, emailak, tokiko komunikabideak...

- Parte-hartzaile kopurua:

Lehen saioa: 51 parte hartzaile: 27 emakumezko eta 24 gizonezko
Bigarren saioa: 28 parte hartzaile: 16 emakumezko eta 12 gizonezko
Hirugarren saioa: 17 parte hartzaile: 12 emakume eta 5 gizonezko

- Herritar orori irekiak
- Eztabaidagaiak lantzeko gunea
- Dinamikoak: proposamenak egin eta prozesuen beharretara egokitua

## TESTUINGURU BERRIA, COVID-19A

Testuinguru berria dela eta, prozesuaren azken zatia atzeratu behar izan da. Hirugarren saio irekia, maiatzetik azarora atzeratu da. Eta formatu aldetik ere, aldaketa egon da: aurrez aurreko saio bat izatetik, online saio batera igaroz.

Horrez gain, eta geldialdian zehar etenik ez egoteko asmoarekin, talde eragilearekin lau bilera egitea aurreikusita bazegoen ere, azkenean zazpi izan dira egindako bilera guztiak orotara.

## 4. IPURUA MERKATU PLAZAREN Helburuak, balioak eta printzipio gidariak

Prozesu guztian zehar garrantzia handia eman zaio proiektuak partekatu dituen balioak lantzeari. Egitasmoaren jarduera zehazteko gida izango direlako eta erabakiak hartzen lagunduko duelako. Saio ireki guztietan eman zaio lekua gai honi eta ekarpenak egiteko aukera zabalik egon da. Hori horrela, proposatutako kontzeptuak hiru eremutan sailkatu ditugu, izaeraren arabera: helburuak, balioak eta printzipio gidariak. Taulan adostutakoan laburpena:

HELBURUAK	BALIOAK	PRINTZIPIO GIDARIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipurua auzoa indartu</li> <li>• Kultura eta baliabideen irisgarritasuna ahalbidetu</li> <li>• Elkarrekintza eta belaunaldi-artekotasuna landu</li> <li>• Aisia hezitzailea sustatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aniztasuna</li> <li>• Inklusibitatea</li> <li>• Berdintasuna / Feminismoa</li> <li>• Jasangaritasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autogestioa</li> <li>• Irabazi asmorik eza</li> <li>• Erantzunkidetasuna</li> <li>• Horizontaltasuna</li> <li>• Gardentasuna</li> <li>• Euskaratik abiatu</li> </ul>

### HELBURUAK:

Helburuak izango dira proiektuaren xedearekin zerikusia dutenak. Hauek dira aipatu direnak:

- **Ipurua auzoa indartu:** auzorako ekipamendua izango da, auzoari bizitasuna eman nahi diona
- **Kultura eta baliabideen irisgarritasuna:** kultur jarduera landuko da espazio honetan eta hau ahalik eta publiko zabalenari iristea izango du xede. Hori kontuan hartuko da prezio politketan, adibidez.
- **Elkarrekintza eta belaunaldien artekotasuna landu:** belaunaldi ezberdinen arteko topaleku izan nahi du espazio honek, Adin guztietako pertsonak izango dute zer eman eta zer jaso.
- **Aisia hezitzaile sustatu:** proiektuaren hastapenetan batez ere haurrentzako babeslekua izatea zuen helburu espazio honek, eta izaera horri eutsi nahi zaio.

Proposatutako jarduerak izango du aisialdiarekin lotura, bai, baina beti ere ikuspuntu hezitzailea ardatz hartuta.

## BALIOAK

Ipurua merkatu plazaren balioak izango dira partaideek partekatuko dituzten sakoneko oinarriak. Hauek dira prozesuan zehar azpimarratu direnak:

- **Aniztasuna:** zentzurik zabalenean, bai merkatu plazan biltzea nahi den jendearen izaeraren ezaugarrien eta jatorriaren aldetik, bai eta antolatuko diren ekintzen aldetik ere.
- **Inklusibitatea:** izaera oroko jendea izango da ongietorria da Ipuruako Merkatu Plazara. Ahalegina egingo da kultur baliabideetatik urrun egon ohi diren horiek erakartzeko.
- **Berdintasuna/feminismoa:** genero berdintasuna ardatz izango du jarduera orok, bai eta funtzionatzeko moduak ere. Guztion ahotsak entzungo ditugu eta guztion ahotsak izango dute garrantzia bera. Emakume sortzaileen lanei eta jardueri plaza eskaini eta euren lana bisibilizatzeko ahalegina egingo da.
- **Jasangarritasuna:** eraikinaren jarduerak ingurumen aldetik ahalik eta inpaktu negatiborik txikiena sortzeko lanketa kontzientea egingo da.

## PRINTZIPIO GIDARIAK

Ekiteko moduarekin izango dute zerikusia, funtzionatzeko oinarriekin:

- **Autogestioa:** proiektuaren bihotza autogestioaren bidez egingo da; antolaketa eta jarduerak Ipuruako merkatu plazaren baitan erabakiko direlako. Eraikinari dagokionez, udal jabetzakoa denez, **kudeaketa partekatuarekin** formula erabiliko da. Mantenua eta baliabideak udalaren esku joango direlarik.
- **Irabazi asmorik eza:** Ipuruako merkatu plazak ez du irabazi asmorik izango. Horrek ez du esan nahi ez denik jarduera ekonomikorik egongo, eta kontratatzen diren profesionalak duintasunez kobratuko dute. Jardueraren batek irabaziak sortzen baditu, proiektua indartzeko baliatuko dira eta ez dira kideen artean banatuko.
- **Erantzunkidetasuna:** pertsona ororen jokabideak eragina du besteengan, eta ondorioz, egindakoaz jabetzea eta ondorioak asumitzea kide ororen ardura da. Era berean, denon esku dago proiektuari eustea eta denboran mantentzea. Lan kargak eta ardurak orekaz banatuko dira pertsonak zainduko dira.
- **Horizontaltasuna:** antolaketa horizontala egongo da eta denon ahotsak izango du pisu bera, ez da hierarkiarik egongo, asanblada izango da erabakigune nagusia.
- **Gardentasuna:** erabaki guztiak publikoak izango dira eta informazioa partekatu egingo da denon informaziorako irisgarritasuna bermatzeko.
- **Euskaratik abiatu:** beti ere gainerako hizkuntza guztiei zabalik. Euskara izango da harremanetarako eta komunikaziorako hizkuntza nagusia, beti ere pertsona guztien ulergarritasuna bermatuz. Kasuan-kasu erabakiko da zein hizkuntzatan eramango diren jarduerak emaitzen eta xede taldearen arabera.

# 5. ANTOLAKETA EREDUen azterketa

Ipurua merkatu plazako eraikineko erabilera adosteko, hiru espazio ezberdinetako antolaketa ereduak hartu dira oinarri:

Esperientziak, ereduak	Antolaketa taldeak	Euskarri audio bisualak
Astra – Gernika 	Koordinadora/asanblada	Astra Gernika, <a href="#">bideoa</a>
	Kudeaketa taldea	
	Egitarau lan taldea	
	Diruzaintza lan taldea	
	Komunikazio lan taldea	
Wikitoki – Bilbo 	Bitartekaria	Zer da Wikitoki? <a href="#">Bideoa</a>
	Koordinazioa	
	Egunerokotasuna	
	Baliabideak	
Ateka beltz herrigunea – Leitza 	Kanpo harremanak	Wikikrazia: <a href="#">bideoa</a>
	Koordinadora/Batzordea	Ateka beltz herrigunea historia: <a href="#">bideoa</a>
	Eragileetako ordezkariekin bilera	
	Erabaki handietarako batzarra	
Batzar orokorra		

Jarraian, bakoitzari buruzko azalpen laburra egingo dugu, antolaketa taldeez gain, bestelako ezaugarriak adieraziz:

## ASTRA

Antolaketa:

TALDEA	FUNTZIOA	OSAKETA	MAIZTASUNA
KOORDINADORA/ASANBLEA	Proiektua garatzeko beharrezkoak diren erabaki potoloak hartu —parte-hartze prozesuak, finantziarioak, erakundeekin harremanak...—.	Gernika-Lumoko kultur eta gizarte eragileetako hainbat ordezkari eta herritarrak	Momentuan momentuko beharrezkoak diren erabakien arabera, Asanbladaren maiztasuna eta ordutegia aldatu egiten da. Une honetan, urtaro bakoitzean bat egiten da.
KUDEAKETA LAN-TALDEA	Egunerokotasunean dauden beharrezkoak diren erabakien arabera, arazoei eta proiektuei irtenbidea ematea. Batez ere, Astra Proiektuaren kudeaketa teknikoaz zerkusua duten erabakiak hartzen dira bertan.	Lan-taldeetako ordezkariak eta parte hartu nahi duten herritarrak.	Bi astean behin
EGITARAU LAN-TALDEA	Astrako egitaraua koordinatzea. Astrara heltzen diren proposamenei erantzuna ematea.	Lan-taldeko kideak eta parte hartu nahi duten herritarrak.	Astean behin. Asteartero. 19:00etan proposamenei harrera. 19:30ean bilera.
DIRUZAINZTA LAN-TALDEA	Astraren ekonomiaz arduratzea. Diru kontu guztiak herritarren eskura jartzea.	Lan-taldeko kideak eta parte hartu nahi duten herritarrak.	Beharrezko arabera
KOMUNIKAZIO LAN-TALDEA	Astraren barne eta kanpo komunikazioaz arduratzea.	Lan-taldeko kideak eta parte hartu nahi duten herritarrak.	Beharrezko arabera
BITARTEKARIA	Astra Proiektuaren eta herritarren arteko zubi egitea.		Astelehenean barikura, 16:30etik 20:30era

Urteetako prozesu luze baten ondorioz sortutako proiektua da. Gaztetxe baten aldeko mugimendu gisa hasi zena, Gernikako herri eragile eta gizarte mugimenduen bilgune bihurtu zen, eta sendotasun horri esker lortu du gaur egun duen egitura. Bi langile dauzka (bitartekaria eta tabernako langilea) eta asanbladaz gain, lau lantalde dauzka. Bitartekaria da figura klabea.



## Wikitoki

Wikitoki Bilbon dagoen elkarsorkuntzarako laborategia da eta hainbat elkartek, autonomok eta enpresa txikik osatzen dute. Bakoitzak bere funtzionamendu autonomoa dauka baina espazioaren dinamizaziorako edota komunak diren gaien kudeaketan inplikatzeko konpromisoa hartu behar dute partaide guztiek.

Xedearengatik edo jarduerarengatik baino, antolaketa moduagatik hartu dugu eredutzat.

### Zirkuluen araberako antolaketa.

Gaien edo eginkizunen araberako hiru zirkulu daude (egunerokotasuna, baliabideak eta kanpo komunikazioa) eta laugarren bat koordinaziorako. Zirkulu bakoitzak erabakiak hartzeko askatasun osoa dauka eta zalantzak dituenen koordinazio zirkulura eramaten du gaia.

Koordinazio zirkuluan beste zirkuluetako bi kide daude. Bat azalpenak emateko eta bestea informazioa jasotzeko ondoren bere zirkulura eramateko. "Lotura bikoitza" deitzen zaio.

Erabakiak hartzeko prozedura ere zehaztuta daukate; ONESPEN bidez (*consentimiento*), hartzen dira erabakiak. Onespena kontsentsuaren aldaera bat da, eta erabakiak ahalik eta onarpen handienarekin hartzea bilatzen du proposatutako ideien edukietan jarriz fokoa.

\*Talde eragileko kide batek Gasteizko BAGA BIGA Hazkuntza autonomoa garatzeko elkartearen berri eman du, Wikitokiren antzeko antolaketa sistema duelako.

### Atekabeltz herrigunea, autogestionatutako eremua.

Atekabeltz Leitzañ dago eta herriko 10-12 eragile ezberdinek partekatzen duten eraikina da. Autogestionatua da eta lan boluntarioaren eta auzolanaren bidez sostengatzen da.

Finantziario bide nagusia kideen kuotak dira (12 euro urtean), eta kide guztiek betebeharrak dituzte, txandakatuz, (garbiketa txandak, kontzertuetako txandak eta erosketak). Eraikineko sarrerako giltza eragile guztiek dute eta gela bakoitzekoa eragile bakoitzak.

Badaude denonak diren espazio komunak: ikus entzuneko gela, liburutegia, ordenagailu gela, sukaldea, logela eta biltegia.

Komunikazioa e-mail bidez gauzatzen da eta agenda google calendar bidez (antolatzeko asmoa horiz, eguna zehaztuta berdez).

Hau da Atekabeltzek duen antolaketarako egitura:

TALDEA	FUNTZIOA	OSAKETA	MAITZASUNA
COORDINADORA/BATZORDEA	Agenda orokorra eta guztiaren antolakuntza bideratzea	Batzordeko kideak eta eragileetako ordezkariak	Astean behin elkartzen dira
ERAGILEETAKO ORDEZKARIEKIN BILERA	Eragileetan eman diren eztabaidak taldera eraman eta adostasunera iristea	Eragileetako (1-2 ordezkari) + koordinadora	Hiru hilabetez behin
ERABAKI HANDIETARAKO BATZARRA	Erabaki handiak hartzeko gure asanblearioa	Eragileetako (1-2 ordezkari) + koordinadora	Urtean gutxienez 1 (2 edo 3 normalean bai)
BATZAR OROKORRA	Nahi duen orok parte hartzeko gunea, asanblea.	Koordinadora + eragile ordezkariak + nahi duenak	Urtean behin

## Sintesia


Talde eragilean esperientzia hauek ezagutu ondoren, azterketa labur bat egin zen apirilaren 7ko online bileran eta eredu bakoitzaren alde onak eta eragozpenak identifikatu ziren:

<b>Gustukoak</b>	<b>Ez gustukoak</b>
-Wikitoki: sinpletasuna (3 gune + koordinazioa). Bilera kopurua arindu -Baga Biga: erabakiak hartzeko prozedura. Bileren edukia arindu	-Atekabeltz: eragile bakoitzak bere eremua giltzarekin itxita izatea.

Hori horrela, Ipurua Merkatu Plazarako diseinatu den antolaketa eredu batez ere Wikitoki eta Baga Bigako esperientzietan oinarritutakoa da.

## 6. Antolaketa

Eraikinaren erabilera gidatu eta antolatzeko, 4 talde bereizi dira: koordinazioa edo talde eragilea, egunerokotasuneko kontuak aurrera eramateko taldea, kanpo harremanetarako taldea eta baliabideen taldea.



### Asanblada

Asanblada izango da Ipuruako Merkatu Plazaren erabakigune nagusia, urtean behin egingo da gutxienez eta beharren arabera ezohiko batzarrak deituko dira.

Helburuak:

- Proiektuaren jarraipena egitea.
- Balantzeak egitea. Urteko jardueraren erreposoa eta hurrengo ekitaldietarako plangintzak aurkeztea.

- Proiektuaren norabide orokorra zehaztea.
- Erabakiak hartzea.

Koordinazio taldeak deitu, antolatu eta gidatuko du eta irekiak izango dira eta nahi duen orok hartu ahal izango du parte.

### **Koordinazio taldea**

**Koordinazio taldeak** izango du pisu handiena eta talde honen **helburuak** honakoak izango dira:

- Ikuspegi orokorra izatea
- Koordinazioa ziurtatzea
- Beharrak aztertzea
- Funtzioak egoki bermatzea

Honako **funtzio** hauek izango ditu:

- Proposamenak jaso eta aztertu
- Hobekuntza proposamenak egin
- Proiektuaren informazioa landu eta sortu
- Gainerako batzordeak eta kideak informatu
- Asanbladak deitu eta gai zerrendak prestatu
- Barne komunikazioa ziurtatu

Koordinazio taldeko **kideak**:

- Gutxienez batzordeetako kide bana
- Nahi duena

### **Egunerokotasuna**

Egunerokotasunaren taldeak merkatuaren ohiko funtzionamenduari egingo dio zaintza eta jarraipena. Proiektuaren bihotza izango den agenda antolatuko du eta horretaz gain, elkarbizitzarekin zerikusia duten gaien jarraipena egingo du.

**Egitekoak**:

- Agendaren antolaketa.
- Eguneroko funtzionamenduari zerikusia dutenak, elkarbizitzaren zaintza.

### **Baliabideak**

Baliabideen taldeak jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak kudeatuko ditu: pertsonak, espazioak, materialak eta ekonomikoak.

**Egitekoak**:

- Diru zaintza eta baliabide ekonomikoen kudeaketa.
- Baliabide materialen kudeaketa eta zaintza.
- Eraikinaren zaintza eta mantenuaren jarraipena.
- Espazioaren zaintzarako auzolanak antolatu eta deitu.



## **Kanpo komunikazioa**

Kanpo harremanez eta komunikazioaz arduratuko den taldea izango da. Batez ere, udalarekin lotura egingo du, koordinazio egokirako, baina baita bestelako eragileekin ere.

### **Egitekoak:**

- Harremanak udalarekin
- Kanpo komunikazioa
- Harremanak bestelako eragileekin


## 7. Proposatutako ekintza motak

Otsailaren 5eko lehenengo saioan merkatu plazan aurrera eramateko ekintza edo jardueren proposamenen lanketa egin zen. Hasiera batean, eraikinaren egokitzapenerako beharrak identifikatzeko, batez ere, baina baita agendaren osaketarako lehen ideia jasa gisa.

Elkartearen lehenengoetariko egitekoetako bat izango da ekintzak proposatu dituzten herritarrekin harremanetan jartzea eta ideia hauek proiektu proposamen sendoago batera pasatzea izango da.

6 motako 30 jardueratik gorako proposamen egin ziren saio hartan. Honela sailkatuta:

PROPOSATUTAKO JARDUERAK, MULTZOKATUTA - ACTIVIDADES Y PROPUESTAS, POR GRUPOS



Hau da proposatutako ekintzen laburpen taula:

<b>Aisialdia</b>	Esperimentazio eta parte hartze aisialdia familian bai kutsu kulturala, edota gorputza, teknologia berriak edo beste edozein gai umeein batera konpartitzeko tailerrak programatuz
<b>Bilguneak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Denboraren Kutxa</li> <li>• Edoskitze taldea</li> <li>• Irakurketa zine kluba</li> <li>• Liburu trukea</li> <li>• Laburmetraien proiektzioa</li> <li>• Teknologia berrien inguruko bilgunea</li> <li>• Zine kluba eta ekimen audiobisualak</li> </ul>
<b>Emankizunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasturte amaierako emanaldia (antzezlanak)</li> <li>• Marrazketa musikarekin</li> <li>• Musika emanaldiak</li> <li>• Programaketa kulturala asteburuetan</li> </ul>
<b>Ikastaroak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akrobazia ikastaroa</li> <li>• Antzerki tailerra</li> <li>• Dantza ez gidatua</li> <li>• Ezagutza tailerra</li> <li>• Gorputz espresioa</li> <li>• Guraso eskola</li> <li>• Laburmetraia tailerra</li> <li>• Gimnasia</li> <li>• Josketa eta puntu tailerra</li> <li>• Urtaro aldaketen adierazpena</li> </ul>
<b>Ikuskizunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laburmetraien proiektzioak</li> <li>• Zinekluba, eta urtean behin jaialdi txiki bat</li> <li>• Ikasturte amaierako antzerki emanaldia</li> <li>• Kultur programazioa</li> <li>• Musika emanaldiak formatu txikian</li> </ul>
<b>Tailerrak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomia zirkularra</li> <li>• Birziklatze sormena</li> <li>• Landare baratza</li> <li>• Musika taldea</li> <li>• Sukaldaritza ikastaroak</li> <li>• Sukaldaritza tailerrak</li> </ul>
<b>Bestelakoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erraldoi konpartsaren entseguak.</li> <li>• Nerabeentzako espazioa gaez</li> <li>• Tokiko produktu ekologikoen kontsumo taldea</li> <li>• Udaleko zerbitzuak gerturatzea: gizarte zerbitzuak (nagusientzat)</li> </ul>

## 8. Eraikinaren antolaketa beharrak

Ipuru merkatu plazako eraikinean garatzea aurreikusten diren ekintza motak kontuan hartuta, eraikinaren aukerak edo beharrak identifikatzeko ariketa egin da. Horretarako, taldeka planoen gainean aritu dira<sup>1</sup>. Hurrengo pausoa, taldeak osatzea eta proposatu diren jarduera horiek eraikinaren aukeretara egokitzeko, planoen gainean proposamenak egitea izan da. Ondoren, talde bakoitzak landutakoa taldean handian konpartitu du.

### HAUEK DIRA ONDORIO NAGUSIAK

Lehenik eta behin, eraikinaren birgaitze lanetan, ezinbestean kontuan hartu beharko dira irisgarritasun parametroak eta ezgaitasun funtzionalak dituzten pertsonentzako egokitzapenak.

Aktibitatean zentratuz, hauek dira identifikatu diren behar nagusiak.

Eraikinaren inguruko **beharrak**:

- Erabilera anitzeko gelak
- Emanaldi ezberdinetarako gunek polibalenteak
- Modulartasuna landu
- Erdiko plantako ezker paretak kendu espazioa irabazteko
- Beheko solairuan etorkizunean sukaldea eta barra izateko aurreikuspena
- Goiko solairuan espazio librerako eta egoteko lekuak aurreikusi dira: liburutegia, sofak...
- Komunak

Horretarako, honako **baliabide** hauen beharra identifikatu da:

- Mahaia eta aulkiak (bileretarako, ekitaldietarako eta liburutegirako)
- Tailerretarako (ura, proiektorea, bozgorailua...)
- Emanaldietarako (proiektorea, agertokia, musika aparatua, bozgorailua...)
- Egoteko lekuak (liburutegia...)
- Sukaldea
- Biltegia

---

<sup>1</sup> Planoen lanketak eranskin gisa gehitu dira 1. saioko aktan



Ipurua  
Merkatu  
Plaza

emun

## ERANSKINAK

- Ipurua merkatu plazaren erabilera gida
- Saio irekien aktak (3)
- Talde eragilearen bileren aktak
- Abiatzeko ekintza plana